

**UDALBATZAK 2013KO EKAINAREN 25EAN  
EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION  
AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila hamahiruko ekainaren 25eko arratsaldeko 18:30 zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ alkate jaunaren esanetara, ondorengo zinegotziak elkartu dira :

- Garazi LOPEZ ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luis Maria DIEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Iruñe BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTIN
- M<sup>a</sup> Angeles MACHIN RODRIGUEZ
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCON
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maite PEÑA LOPEZ
- Jose Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- Jose Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M<sup>a</sup> Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO

Ez da etorri Maria RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak).

Bertan dago eta ekitaldiaz fede ematen du Begoña BUENO BARRANCO idazkari nagusiak.

Era berean, bertan dago Txema ARENZANA GARCIA udal kontu-hartzailea.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE  
LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 25 DE  
JUNIO DE 2013**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 25 de junio del año dos mil trece, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Julen MENDOZA PÉREZ, los siguientes Concejales:

- Garazi LÓPEZ DE ECHEZARRETA AUZMENDI
- Luís María DÍEZ GABILONDO
- Miren Alazne KORTA ZULAIKA
- Unai UNSUAIN ELVIRA
- Iruñe BALENCIAGA ARRESE
- Jon TXASKO ORGILLES
- Asier MUJIKA ETXANIZ
- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- M<sup>a</sup> Ángeles MACHÍN RODRÍGUEZ
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- M<sup>a</sup> del Mar CARRILLO GASCÓN
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Maite PEÑA LÓPEZ
- José Ignacio IRASTORZA GARCIA
- Marta BAREA JUARISTI
- José Manuel HERZOG DE BUSTOS
- M<sup>a</sup> Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

No asiste María RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ (Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak).

Asiste y da fe del Acto, la Secretaria General Begoña BUENO BARRANCO

Igualmente asiste el Interventor Municipal Txema ARENZANA GARCIA

**1. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak (395 zk.tik 499 zk.ra) Zinegotzi-ordezkariek (771 zk.tik 949 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.**

Idazkariak ondorengo ebazpenen berri eman du: Alkatetzarenak (395 zk.tik 499 zk.ra) Zinegotzi-ordezkariek (771 zk.tik 949 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrarenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**2. Errenteriako Udala eta Orereta Ikastolaren artean Santo Angel de la Guarda ikastetxeko zati baten lagapen-erabilerari buruz sinaturiko kontratua aldatzea: eraberritze lanak eta epea zabaltea.**

Ondoren mintzatu dira:

\* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du gai horren inguruan bezperan bertan zenbait eskaera egin dituztela. Batetik Alderdi Sozialistak taldeak oso zuzenketa bat tarteratu du, eta bestetik, Alderdi Sozialistak berak gai honen inguruko txostenak eskatu dizkie zuzenean Kontu-hartzaileari, Idazkari nagusiarri, Kontratazio eta Ondare Saileko teknikariari, Lege-aholkulariari eta Hirigintzako teknikaria. Gaiari sartu baino lehen, prozedura aldetik, lehenengo osoko zuzenketa aurkeztu eta bozkatu beharko lukete, baina alde aurretik, berak aipamen pare egin nahiko lituzke: Batetik, egin diren eskaeren inguruan, argi geratu dadin oraingorako eta ondorengoetarako ere, eskaerak Alkateari egiten zaizkiola, eta Alkateak eskatzen dituela txostenak,

**1. Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 395 al 499, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 771 al 949, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 395 al 499, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs. 771 al 949, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

**2. Modificación del Contrato de cesión de uso de una parte del Colegio Santo Angel de la Guarda suscrito entre el Ayuntamiento y la Ikastola Orereta: Obras de rehabilitación y ampliación de plazo.**

Se producen las siguientes intervenciones:

\* Interviene en euskera el Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) manifestando que, en el día anterior se dio entrada a ciertas peticiones en relación a este punto. Por una parte, el Grupo Socialista interpuso una enmienda a la totalidad, y por otra, el propio Grupo Socialista ha solicitado a los técnicos directamente informes. Esto es, al Interventor, a la Secretaria General, a la técnica de Contratación y Patrimonio, a la Asesora Jurídica y al técnico de Urbanismo. Desde el punto de vista de procedimiento, primero se tendría que presentar la enmienda y después tendrían que votarla, pero con anterioridad la gustaría realizar un par de menciones: Por una parte, en relación a las peticiones, desea que quede claro para ahora y para después, que las solicitudes se

baldin eta egoki ikusten badu. Zentzu horretan, eskaera guztietatik, nahiz eta bezperan sartua izan, zorionez, teknikari gehienek erantzun dute. Zehazki, mahai gainean du Idazkariak bere txostena. Bestetik, Hirigintzako teknikariaren txostena, Arkitektoarenarekin batera, baduzue. Eta bere asmoa zen Kontu-hartzaileari gaur bere iritzia eskatzea egin zaizkion eskaeren inguruan. Lege-aholkularia eta Kontratazio eta Ondare Saileko teknikariei dagokionez, esan behar du berorietako bat oporretan dagoela eta, hala ere, berak esan behar du txostena bera nahiko argia dela eta beraz ez dela beharrezkoa beste bat egitea. Dena den, gaian sartu baino lehen, bi teknikari hauek eginiko txostenean aitatutzen zuten hutsune bat topatzen zutela, zehazki beste gai bat da jatorrizko hitzarmenaren izpiritua eta zergatik sinatu zen baldintza horietan eta epe horren arabera. Hori dela eta funtsezkoa da aldaketa eragiten duten arrazoiak justifikatzea eta Hezkuntza departamentuko txostena horretarako tresna izan behar du. Zentzu batean txosten horrek eta Kontu-hartzaileak eginikoak aipatzen dute ez dagoela justifikatua gaia. Hori subsanatze aldera, justifikazio-kontua delako, motibazio-kontua delako, bi paragrafoko proposamen bat gehituko dute, hain zuzen Talde Sozialistaren zuzenketa aurrera ateratzen ez bada, bozkatuko den proposamenari gehituko dizkietenak. Ondoren, gazteleraz esan du proposamenaren 3. orrialdean dagoen paragrafo batean zera esaten duela: "Errenteriako Udala eraikinaren jabea denez, eta Orereta ikastola soil-soilik emakidadun bat, bertan egin beharreko obra-motagatik eta aurrekontua aintzat hartuta, proposatzen dugu Errenteriako Udalak exekutatzea eta finantzatzea obra horiek". Bere Taldeak ondorengo paragrafoak gehitzea proposatzen du: "Errenteriako Udala izanik eraikin horren jabea, eta Orereta Ikastola emakidaduna soilik, eta egin beharreko obra-motak aintzat hartuta, bere taldeak

realizan al Alcalde, y que es el Alcalde quien pide los informes si así lo considera. En ese sentido, aunque todas las solicitudes fueran realizadas en la víspera, por suerte, la mayoría de los técnicos han respondido, siendo el último el que está encima de la mesa realizado por la Secretaria General. Por otra parte, dice que los concejales disponen del informe realizado por el técnico de Urbanismo junto con el del Arquitecto. Su intención era la de solicitar al Interventor cuál era su opinión acerca de las solicitudes realizadas. En cuanto a los informes de la Asesora jurídica y de la técnica de Contratación y Patrimonio, tiene que decir que una de ellas está de vacaciones, pero que a pesar de ello, el informe era medianamente claro y que por tanto no considera que sea necesario harcerlo otro. En cualquier caso, en el informe realizado por estas dos técnicas se mencionaba que había un vacío, concretamente que era otro tema el espíritu del convenio original y porqué se firmó en esas condiciones para dicho plazo. Por dicho motivo considera que es fundamental explicar las razones que motivan dicha modificación, para lo cual tiene que ser una herramienta el informe del departamento Educación. En cierto sentido dicho informe y en el realizado por el Interventor se menciona que el tema no está justificado. Para subsanar el mismo, porque es un tema de justificación, un tema de motivación, han añadido una propuesta de dos párrafos que, en el caso que no saliera adelante la enmienda del grupo Socialista, añadirían a la propuesta que se vaya a votar. Continúa en castellano señalando que en la página tres de la propuesta, hay un párrafo que dice: "Siendo el Ayuntamiento de Errenteria el propietario del edificio y la Ikastola Orereta un mero cesionario, a la vista de la tipología de las obras y su presupuesto, se propone que sea el Ayuntamiento de Errenteria quien ejecute y financie dichas obras", su Grupo propone añadir los siguientes párrafos: "Cabe

ondorengo paragrafoak gehitzea proposatzen du: Aitatzekoa da une hauetan Udalak ez duela herri honetako interes publikoko elkarteekin uzte-kontratu bakar bat ere eginik, alegia, egin beharreko obra guztiak emakidadunaren gain izatea. Egoera honek egun lokal horiek baliatzen dituzten gainontzeko elkarteekin konparaziozko bidegabekeria sortzen du. Hortaz bidezkoa ikusten dugu Udal honek bere gain hartzea kostu horiek. Era berean, komenigarria da gogorarazteko Orereta Ikastola Kooperatiba Elkartearen irabaztea xede ez duen kooperatiba dela, eta beraz, Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantzak, 2008ko abenduaren 1eko Agindu bidez, erabilpen publikokoa aitortua zuela, eta, desegitea tokatuko balitz, bere ondasunak Eusko Erkidegoko Administrazioaren eskuetan geratuko liriteke. Egundako elkarte ia-ia mila sehien lagunek osatzen dute eta bertan mila bostehun ikasle eta ehun eta berrogei langile ari dira lanean”, Horiek izango liriteke sartu beharreko bi paragrafoak, eta gero honela jarraituko luke: “horregatik”, “bestalde” beharrean. Alegia, “horregatik proposatzen dugu emakida-epea 2028ko abuztuaren 30a arte luzatzea. Gehiketa hauekin zuzendu nahi dute osoko bilkurara ekarri zuten proposamenaren arrazoitze-faltaren ustezko hutsunea.

\* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) esan du bere Taldeak kontu hau ez dela serioa esaten jarraitu beste erremediorik ez duela. Izan ere, zenbat eta interes gehiago izan aurrera ateratzeko, orduan eta gehiago nahastuta geratzen baita. Euren afera hau mahai gainean uztea nahi dute argi eta garbi, besteak beste, une hauetan eskatu dituzten txostenekin eta oraindik eman ez dizkietenekin, eta orain mahai gainean utzi dizkietenak oraindik ezin izan dituztenez ez aztertu ez irakurri, berriro esan behar dio Alkate jaunari, hau

señalar que actualmente no existe ningún otro contrato de cesión realizado por este Ayuntamiento con asociaciones de interés público de este Municipio que contemplen que las obras de inversión sean asumidas en su totalidad por el cesionario. Esta situación genera un agravio comparativo respecto al resto de asociaciones que disfrutaban actualmente de los citados locales, por lo que se considera oportuno que este Ayuntamiento asuma los costes de las obras que han sido señaladas. Asimismo conviene recordar que la Cooperativa sin ánimo de lucro Orereta Ikastola Kooperatiba Elkartearen, fue declarada de utilidad pública por Orden del 1 de diciembre de 2008 del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, quedando su patrimonio, en caso de disolución, en manos de la Administración Autonómica Vasca. Actualmente pertenecen a su tejido asociativo cerca de mil seiscientas personas y cuenta con mil quinientos alumnos y ciento cuarenta trabajadores”. Esos serían los dos párrafos que plantean incorporar y automáticamente continuaría “por ello”, en lugar de “por otra parte”, “por ello se propone ampliar el plazo de concesión hasta el día 30 de agosto de 2028”. Con esta incorporación pretenden subsanar ese posible vacío que podría tener por falta de motivación la propuesta que se traía al Pleno.

\* Interviene el Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) manifestando que, su Grupo tiene que seguir diciendo que esto no es serio. Contra más se quiere sacar adelante este tema, más se lia. Quieren que se deje este tema encima de la mesa, así de claro y de contundente. En estos momentos, con los informes que han pedido y que todavía no se les han dado y los que se les han dejado ahora sobre la mesa, que no han podido estudiarlos, ni leerlos todavía, insiste en que tiene que decir al Sr. Alcalde que esto no es serio, para ellos esto es una

ez dela serioa, eurentzat hau babesgabekeria da. Izan ere, gaur hau beraiei egin badiete, bihar beste edozein Talde Politikori egin diezaiokete, eta hori ezinezkoa da. Eurek mahai gainean proposamen bat zuten eta hura lantzen aritu dira, eta orain dezente aldatzen duen eranskin bat aurkeztu dute. Are gehiago, gauzak aztertzearen txostenak edukitzeko eskubidea dute, eta beraz, une hauetan, erabat babesgabe daude, hain zuzen zuk, Alkate jauna, ahalbidetzen duzulako. Horregatik, mesedez eskatzen dute gaia mahai gainean uzteko eta lasai aztertzeko. Bere aburuz, formula asko daude, irtenbide asko, eurek aztertzeko prest daude, gainera ez bakarrik argitaratu dena. Hots, hitz egiteko, bi aldeek tarteko irtenbideren bat aurkitzeko, edozertarako, alde guztiekin, baita Ikastolarekin ere. Hitzarmena aldatu behar bada, aldatuko dute. Ezin dira horrela egon bizi guztian. Une hauetan herriaren egoera den bezalakoa da, eta erdibidetik jotzen has daitezkeela uste du. Hemen, bete gabeko hitzarmen bat dago. Eta horrela ez bada, txostenak eskatu dituzte zein diren mantentze-gastuak eta zein inbertsiokoak jakiteko, eta kontua aztertzeko horiek behar dituzte. Orain Alkateak aldaketa bat sartu du besterik gabe, eta hori orain artean ez zen behinere gertatu, deigarria egiten zaie ere Idazkariak uztea. Eta, berriro dio, babesgabe daudela, gai hau Errenteriako interesentzako ezin dutelako baldintza egokietan juzkatu eta landu. Hortaz, gainontzeko Talde Politiko eta Idazkariari babesa eskatzen die eurek gutxiengo baldintzetan lanean jarduteko. Lehen esan bezala, prest daude hitz egiteko eta edozein gauzetarako, baina ez modu horretan jarduteko. Asko sentitzen du, baina ezinezkoa da, gaur bertara joan ez daki non sartzeko proposamen batekin aurkitzea, hainbat txosten falta dituztela... Mesedez, Alkate jauna, seriotasun eta zintotasun pittin bat eskatzen dugu.

indefensión. Si hoy les hace esto a ellos, mañana se lo puede hacer a cualquier otro Grupo Político y no puede ser. Ellos tenían sobre la mesa una propuesta que es sobre la que han trabajado, ahora se presenta un añadido que la cambia sustancialmente. Y es más, tienen derecho a tener los informes para poder estudiarlos y por tanto, en estos momentos, su Grupo se encuentra en una indefensión total y usted, Sr. Alcalde, lo está permitiendo. Por esto, piden que por favor se deje el tema sobre la mesa y se estudie con tranquilidad. Hay muchas fórmulas, muchas salidas, están dispuestos a estudiar no solo la que han hecho pública, a hablar, a buscar una salida mixta, a lo que sea, con todas las partes, incluso con la Ikastola. Si hay que cambiar el Convenio se cambia, no pueden estar así toda la vida. En este momento la situación del Municipio es la que es y no pueden empezar a tirar por el camino de en medio. Y es que existe un convenio en el cual se da un incumplimiento, y si no es así, han pedido un informe para que les digan qué es mantenimiento y qué es inversión, y necesitan tenerlos para poder estudiarlos. Ahora el Alcalde mete una modificación así, algo que nunca se ha visto y que le llama la atención que la Secretaria lo permita. Repite que están en una indefensión, no pueden juzgar ni trabajar este tema en condiciones para los intereses de Errenteria. Pide el amparo del resto de los Grupos Políticos y de la Secretaria para que ellos puedan trabajar minimamente en condiciones. Están dispuestos a hablar y a lo que haga falta, pero no de esta forma, ni de esta manera. Lo siente mucho, pero es que no puede ser, vienen hoy aquí, encuentran una propuesta para meter no sabe donde, faltan varios informes, ..., por favor Sr. Alcalde, un mínimo de seriedad, un mínimo de rigor, solo le pide eso.

\* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) erantzun du sartzea proposatzen dituzten paragrafoek ez dutela, inolaz ere, proposamenaren muina aldatzen. Egiten duten gauza bakarra da arrazoiak gehitu. Ez dute besterik egiten, proposamena bera delako, ebazpen-zatia bera delako, sartu dena azalpen-zatikoa da. Gehitu dituzten paragrafo horiek proposamena, batez ere juridiko aldetik, hobeto sostengaturik dago. Presa-kontuari dagokionez, berriz, berak susmoa du Alderdi Sozialista ahal den guztia egiten ari dela gai hau mahai gainean gera dadin, besteak beste, iragan asteazkenaz geroztik –orduan egin zirelako batzordeak– atzo arte, ez du inork erregistroan sartu txosten-eskaerarik, eta aurreko asteko asteleheneetik dokumentazioa bazegoenean. Gainera, batzordean bertan batzordeburuei eska ziezaioketen, mesedez, txostenak egiteko, edo berauek bidezkoa ikusi bazezaketen teknikariek informatzea beharrezkoa zela, batzordean bertan egin zezaketen bertan eginiko galderen inguruan. Azkenik, espedientea legeak betez ari da izapidetzen, bertan jasota daudelako derrigorrezko txosten guztiak. Alderdi Sozialistak txosten gehiago eskatu ditu, txosten asko, euren artean kontraesankorrak direnak, gainera bateren bat Udalbatzari dagokiola begibistakoa dela esaten du, eta beste batzuek erabakia zein udal organori dagokion hartzea eskatzen du, modu horretan eskaerak berak ere kontraesankorrak direlarik. Horrela egin dute, eta gainera, azken egunean, gaineratu du. Aitzitik, espedientearen onartzeko lege ez egon beharreko txosten guztiak daude, eta Alderdi Sozialistako bozeramailearen eskaerak ez duenez ezer aldatzen proposamena, bere aburuz, ez dago arrazoirik gaia mahai gainean uzteko. Alderantziz, eurek bozkatzea planteatzen dute, ez zaielako bidezkoa iruditzen Alderdi Sozialistak mahai gainean uzteko eginiko eskaera, eta horek, ez daki noiz arte, eztabaida luzatzea ekarriko lukeelako. Edonola ere, Idazkariari eta

\* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) responde que los párrafos que proponen incorporar, de ninguna manera modifican sustancialmente la propuesta, lo único que hacen es ampliar la motivación que ya tenía. No hacen otra cosa, la propuesta es la misma, la parte dispositiva es la misma, lo que se incorpora es en la parte expositiva. Otra cosa es que los párrafos que se incorporan hacen que la propuesta tenga un mayor sustento, sobre todo jurídico. En cuanto a la urgencia, personalmente le da la sensación de que el Partido Socialista está haciendo todo lo que puede para que esto quede sí o sí sobre la mesa, porque entre otras cosas, desde el miércoles, que tuvieron lugar las tres Comisiones, hasta ayer, no se ha metido en el registro ninguna solicitud de informe, cuando la documentación ya se tenía desde el lunes de la semana pasada. Se podía haber solicitado en la propia Comisión a los Presidentes o Presidentas de las mismas que por favor se emitiera informe, o incluso si estos estimaban que los técnicos podían informar, lo podrían haber hecho en la propia Comisión sobre las preguntas que se estaban haciendo. Por último, el expediente está tramitado legalmente, en el mismo constan todos los informes que son preceptivos. Lo que el Grupo Socialista ha hecho es solicitar una ampliación de informes, muchísimos informes por cierto, contradictorios los unos con los otros, algunos incluso dicen que es obvio que corresponde al Pleno y otros sin embargo solicitan que se informe a qué órgano municipal corresponde la decisión, contradictorias por tanto las solicitudes de informes. Lo han hecho así y lo han hecho además el último día. Puesto que en el expediente constan todos los informes legalmente preceptivos para su aprobación y dado que la solicitud del Portavoz Socialista no modifica en nada lo que se está proponiendo, consideran que no hay razones para dejar el asunto sobre la mesa y lo que ellos plantean es sacarlo a

Kontu-hartzaileari hitza emateko asmoa du, eta gero azalduko du Hirigintzako teknikariaren txosten laburra zein terminoetan egina den. Eta norbaitek gaiari buruz hitz egiteko bost edo hamar minutuko etenaldia nahi badu, berak ez du inongo eragozpenik hori egiteko.

\* Rodriguez jaunak (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) erantzun dio Alkate jaunari bere hitzak ez direla zuzenak izan. Izan ere, hiru ezohiko batzorde presaka eta korrika egin ziren, eta hori, teknikari guztiek pentsatzen dute, eurek beraiekin hitz egin dutelako, eta beraz, ez dira ezer inbentatzen ari. Horrezaz aparte, lehenik Kultura batzordean, gero Lehendakartzakoan eta azkeneko Ogasuneko batzordeetan Alderdi Sozialistak argi eta garbi utzi zuen bere jarrera, alegia, ez lau lerrotan, baizik eta bi orri idatzi zituzten bertan argi eta garbi adieraziz gero atera den guztia. Horrez gain, bere Taldeak uste zuen ostiraleko Bozeramaileen batzordean, hitz egin izan balute, gaia birbideratzeko aukera izan zezaketeela, itxaroten ere egon ziren. Ostiralean, ordea, goizeko hamaiketan, behin Bozeramaileen Batzordea amaitutkaoan, konturatu ziren Gobernu Taldea ez zela kontu horretan sartuko, eta orduan, bere Taldea, berehala hasi zen lanean. Egun horretan, goizeko zortzietan udaletxean zeuden Idazkariarekin eta teknikariekin hitz egiteko, hau da, ez dute itxaron azken ordura arte, baizik eta ahalik eta denborarik gehien egon dira zain gaia Gobernu Taldearekin adostu eta lantzeko. Eurek ez dute, ez daki noiz arte, kontua mahai gainean utzi, aitzitik kontua konpondu nahi dute, ez dute mahai gainean utzi ea ahaztuta geratzen den. Ez, ez dute denbora gehiagorik izan, eta izan dutena, azkar agudo aprobetxatu dute pentsatzen dutena, ikusten dutena,

votación, no entienden correcto que el Grupo socialista pretenda dejarlo encima de la mesa y postergar este debate hasta no sabe cuando. En todo caso iba a dar la palabra a la Secretaria y al Interventor, luego diría en qué terminos se pronuncia el informe del Técnico de Urbanismo, que es escueto, y si se quiere un receso de cinco o diez minutos para hablar sobre esta cuestión, no tiene ningún inconveniente en hacerlo.

\* El Sr. Rodriguez (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak) responde al Alcalde que sus palabras no han sido correctas. Se hicieron tres comisiones extraordinarias, de prisa y corriendo, cosa que piensan todos los técnicos, y lo dicen porque han hablado con ellos, no se está inventando nada. Independientemente de eso, desde la primera Comisión de Cultura, hasta la última de Hacienda, pasando por la de Presidencia, el Grupo Socialista dejó bien claro su posicionamiento, no en cuatro líneas, sino que enviaron dos folios por escrito reflejando todo lo que dijeron y expresaban claramente todo lo que ha salido después y más. Aparte, su Grupo pensaba que en la Junta de Portavoces del viernes, hablando, podían tener la oportunidad de haber reconducido el tema, por eso esperaron a ese hecho. El viernes a las once de la mañana, una vez terminada la Junta de Portavoces, se dieron cuenta de que el Equipo de Gobierno no iba a entrar en ello y entonces su Grupo, automáticamente, se puso a trabajar. Ese día a las ocho de la mañana ya estaban en el Ayuntamiento para hablar con la Secretaria y con los Técnicos, es decir, no han esperado hasta última hora, sino que han esperado todo lo posible para ver si podían consensuar y trabajar algo con el Equipo de Gobierno. No quieren dejarlo sobre la mesa per sécula seculórum, lo que quieren es solucionar este tema ya, no quieren dejarlo sobre la mesa a ver si se

Gobernu Taldearekin gauzak adosten saiatzeko eta arduradun tekniko eta juridikoekin hitz egiteko. Ez da egia, eta ez du permitituko hain arin hitz egitea, zeren eta Ikastolaren aurka daudela baitirudi, eta bera ez baitago prest inork aipamen txikienik ere egin dezan gai horretaz, besteak beste, bere Taldeak urteak daramazkielako Ikastolarekin lanean. Gauzak gaizkixeago edo hobetoxeago egin ahal izango zituzten, baina egin, egin dituzte; Ikastolaren hezkuntza-proiektua sostengatu dute, orain ere

bultzatzen jarraitzen dute eta euren proposamenak ildo horretatik doaz, hots, proiektua sostengatzeko eta finkatzeko. Eta, berriro dio, gustatu daiteke edo ez, baina alde guztiak exeri eta hitz egin dezaten eskatzen ari dira, baita esateko zerbait izango duen Orereta Ikastola ere, zeinak oraindik ez baitu ezer esan. Hortaz, egon daitezke ados edo ez, baina ez du permitituko Alkate jaunak esatea bere Taldea egintza hau oztopatzen ari dela. Hori ez delako egia, eurek behar duten informazioa eskaka baino ez direlako ari. Gainera, eskatu duten informazioa ez dela beharrezkoa, hori teknikariek esan beharko dutela uste du, edo legelariak, hots, "hau ez da beharrezkoa edo beste honekin tupust egiten du", baina beste asko eurek eta gainontzeko taldeek behar dituzte, hain zuzen Udal honen interesak defendatzeko orduan kontua argi izateko.

\* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du berak ez duela esan Talde Sozialista Ikastolaren aurka dagoenik; ez du esan eta ez daki zergatik aitatu den hori. Edozein gisaz ere, uste du eskatu diren txosten guztiak legeria betetzen duten edo ez jakiteko direla; haren iritziz ez doaz urrutiago, eskariak ez dira erabakia hartzeko informazio gehiagoren beharra adierazten dutenak. Horregatik, hitza teknikariei emango die, hain zuzen beraiek esan dezaten legeria

olvida. No han tenido más tiempo, y el que han tenido lo han aprovechado rápidamente para decir lo que piensan, cómo lo ven, intentar consensuar cosas con el Equipo de Gobierno y hablar con los responsables técnicos y jurídicos. No es cierto y no puede permitir que se diga tan frivolamente, porque parece que están en contra de la Ikastola y no va a permitir que nadie haga ni la mas mínima insinuación sobre esto, su Grupo lleva un montón de años trabajando con la Ikastola. Se habrán hecho cosas

mejores o peores, pero han hecho cosas, han apoyado el proyecto educativo de la Ikastola, siguen apoyándolo y sus propuestas van en ese sentido, en seguir apoyando y consolidando el proyecto. Puede gustar o no, pero están pidiendo que se sienten y lo hablen todas las partes, incluida la Ikastola Orereta, que también tendrá algo que decir y que por cierto, todavía no le han oído. Podrán estar de acuerdo o no estarlo, pero no le va a permitir al Sr. Alcalde que diga que su Grupo está torpedeando esta acción, porque no es verdad, simplemente están pidiendo información que necesitan. Si hay parte de información que han pedido que no sea necesaria, que lo diga el técnico, que lo diga el jurista, "esta no hace falta o choca con esta otra", pero hay muchas otras que necesitan ellos y el resto de los Grupos para tener claro cómo defender los intereses de este Ayuntamiento.

\* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) responde que no ha salido de su boca que el Grupo Socialista esté actuando en contra de la Ikastola, no lo ha dicho y no sabe porqué está mencionando eso. De todas formas, entiende que todos los informes se han solicitado en el sentido de si cumple la legalidad o no la cumple, no van más allá, no son solicitudes que requieran mayor información para adoptar la decisión. Por tanto, lo que va a hacer es dar la



betetzen den; esan dezaten espediente honek izan ditzakeen hutsuneak, eta horren arabera, legeria betetzen ari den edo ez. Bere iritziz, ez da mota honetako erabakia hartzeko ezer funtsezkorik aldatu, iragan asteazkenean batzordetik pasa zen dokumentazio ber-berarekin hartuko dutelako erabakia. Hortaz, hitza teknikariei emango die, Idazkari nagusitik hasita.

\* Idazkari nagusiak esan du gai honi buruzko txostena egin duela Socialistas Vasco – Euskal Sozialistak Udal Taldeak, bezperan sarrerako erregistroan sarrera emanda, zuzenketa-proposamen bat egin zuelako. Udal Araudi Organikoaren (UAO) 50. artikuluan ezartzen duenaren arabera, zuzenketak osoko bilkurak egin aurretik nahiko aurrerapenarekin aurkeztu behar dira, eta zentzu horretan eginiko zuzenketa Udaleko Idazkari nagusiak alde aurretik eginiko txosten juridiko baten bidez informatua izan behar du. Horren baitan adierazi behar du, zuzenketa-proposamena bezperan aurkeztua izan zenez, berau izenpetzen duenak labor eman dituela adierazi beharrekoak. Bestalde, Rodriguez jaunak (Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak), hilaren 24an bertan, hau da, atzo, sarrerako erregistroan idatzi bati sarrera eman zion halaber, eta bertan, besteak beste, Udalbatzeko idazkariari eskatzen zion Errenteriako Udala eta Orereta Ikastolaren artean Aingeru Goardako ikastetxearen zati bat erabiltzeko izenpeturiko uzte-kontratuan aldaketa bat egiteko proposamenari buruzko txosten juridikoa egiteko. Osotasuneko zuzenketari buruzko txosten honek balio beza han planteaturiko kontuei erantzuteko, hain zuzen gaia eta galderak berdinak direlako. Hortaz, gaiari buruz zera adierazten du: Osoko zuzenketan izaera juridiko-administratiboko kontuak zein bestelakoak

palabra a los Técnicos, que digan si efectivamente cumple la legalidad, cuales son los vacíos que pueda tener este expediente, o no, y en función de esto, si cumple con la legalidad, entiende que no se está modificando nada para poder adoptar una decisión de este tipo. Se está adoptando la decisión con la misma documentación que se tenía el miércoles cuando pasó por la Comisión. Pasará a dar la palabra a los técnicos, empezando por la Secretaria General.

\* La Secretaria General señala que ha emitido informe a raíz de la propuesta de enmienda a la totalidad presentada por el Grupo Municipal Socialistas Vasco – Euskal Sozialistak con fecha de registro de entrada el día de ayer. De acuerdo con el Reglamento Orgánico Municipal (ROM) se establece, en su artículo 50, que las enmiendas se presentarán con antelación suficiente a la celebración de la sesión plenaria, y que la enmienda así formulada será objeto de informe jurídico previo por parte de la Secretaria General del Ayuntamiento. En base a ello señalar que a la vista que se presentó la enmienda la víspera, la que suscribe procede a informar la misma de forma sucinta. Por otra parte, el Sr. Rodriguez (Socialistas Vasco – Euskal Sozialistak), el mismo día 24, es decir ayer, también presentó escrito en el registro de entrada solicitando, entre otros, a la Secretaria de la Corporación que emitiese informe jurídico sobre la propuesta de modificación puntual del contrato de cesión de uso de una parte del Colegio Santo Angel de la Guarda suscrito entre el Ayuntamiento de Errenteria y la Ikastola Orereta. Sirva el presente informe relativo a la enmienda a la totalidad para responder a las cuestiones allí planteadas, puesto que el asunto y las cuestiones son las mismas. En torno a ello informa lo siguiente: En la enmienda a la totalidad objeto de informe se recogen tanto aspectos jurídico-administrativos como

(izaera politiko edo juzgukoak, etab.) jasotzen dira. Txosten hau soilik izaera juridiko-administratiboetara mugatuko da, horiek hauxek direlarik: - Justifikazio ez Udalak obra horiek presaz egin behar izateko. Obrak presaz egin behar direla justifikatzeko, espedientean Hiri-mantentze Lanetako arduradunak eginiko txosten teknikoa dago. Bertan zera adierazten du: “argiteria-instalakuntza guztia jendearen segurtasuna eta instalakuntza indarrean dagoen legeriari egokitu

beharra”. Obrak Udalaren kontura izan behar ote dutenari buruz, Ondare eta Kontratazio arduradun-teknikariak eta Lege-aholkulariariak elkarrekin eginiko txostenean, hala nola Udal Kontu-hartzaileak eginikoetan ez dela nahiko arrazoitua izan aditzera ematen zen. Halaxe da, zeren eta, akordio eta administrazio-egintza orok arrazoitua izan behar baitu, hain zuzen hartu beharreko erabakien arrazoiak zeintzuk diren jakiteko. Ildo horri jarraiki, Auzitegi Nagusiko jurisprudentziak (besteak beste, 2001eko urtarrilaren 30ean emaniko epaia) zera jartzen du: administrazio-egintza ondorengo eran arrazoitu behar da: zein den arrazoa, azalpen bat, ebazpen jakin batera eramán dituen arrazoiak arrazoinalki arrazoituak. Bere iritziz, kasu honetan falta izango litzateke uzte-kontratuá aldatzeko proposamena –Udalari 543.000 € inguru kostako litzaiokeen obrak batzuk bere gain hartuz– egitera eramandako azalpena. Azkenik jakitera ematen du ez arrazoitzeak, arau orokor gisa, kontua indarrrik gabe utz dezakeela. Bestalde, zein diren inbertsioari dagozkion obrak eta zein mantenimenduari dagozkionak, berak esan behar du, Udal arkitektoak, 2013ko ekainaren 24an, eginiko txostenean zera adierazten duela: “egin beharreko obrak inbertsioko obra gisa kalifikatu behar dira”. Kontratuaren berrikuspena. Zuzenketan adierazten da proposamenak ez duela aldaketa puntual baten izaera, indarrean dagoen kontratuaren oinarritzko

otros (de carácter político o juicios de valor, etc). El presente informe se va a ceñir a los aspectos jurídico-administrativos, que concretamente son los siguientes: - Falta de justificación de la asunción de las obras por parte del Ayuntamiento y de la urgencia de las mismas. En lo que se refiere a la urgencia de las obras, en el expediente administrativo consta informe técnico de la Encargada de Mantenimiento Urbano en el que se recoge “la necesidad de la

sustitución de toda la instalación eléctrica con carácter urgente para poder garantizar la seguridad de los usuarios y adecuar la instalación a la legalidad vigente”. En cuanto a la justificación de la asunción de las obras por parte del Ayuntamiento, tanto en el informe jurídico redactado conjuntamente por la Técnico responsable de Patrimonio y Contratación y por la Asesora Jurídica, como en el informe del Interventor se desprende que no está suficientemente motivada. Efectivamente, todo acuerdo y acto administrativo ha de estar motivado, de tal forma que se pueda conocer las razones de las decisiones a adoptar. En este sentido decir que la jurisprudencia del Tribunal Supremo (entre otras la Sentencia de 30 de enero de 2001) establece que la motivación del acto administrativo consiste en un razonamiento, en una explicación, en una expresión racional de las causas que han conducido a una determinada resolución. En este caso faltaría la explicación sobre las causas que conducen a proponer la modificación del contrato de cesión de uso asumiendo el Ayuntamiento la ejecución de unas obras por importe aproximado de 543.000 €. Señalar finalmente que la falta de motivación, como regla general, es causa de anulabilidad. - La determinación de cuáles son obras de inversión y cuales de mantenimiento. A este respecto decir que el arquitecto municipal ha señalado en informe redactado al efecto con fecha 24 de junio de 2013,

baldintzak aldatzen dituelako, eta beraz, berori berrikusi beharko litzakeela. Berak, bere aldetik, espedientean jasota dagoen txosten juridikora jotzen du, bertan ematen direlako ezagutzera planteatzen diren aldaketak zertan datzan (Udalak bere gain hartzea obra zenbait eta erabileraren uzte-kontratuaren epea luzatzea). Bertan adierazten denaren arabera, erabileraren uzte hau onartzeko eskumendun organoak, era berean, eskumena du onartzeko, eta hala balegokio, aldatzeko ere. Hala ere, lehen aitatu den moduan, aldaketak arrazoitua izan behar du. Ez dagoela Hirigintza

departamentuko eta Idazkari nagusiaren txosten juridikorik: Espedientean derrigorrezko txosten teknikoak eta juridikoak jasota daude. Gai honen inguruan esan behar du ez daudela jasota eta ez dutela zergatik egon behar ere. Hirigintzako txosten juridikoaren inguruan, arlo horretako legegaholkulariak 2013ko ekainaren 24an egindako txostenean ondo aski adierazten duen moduan, "espediente Hezkuntza saila eta Kontratazio eta Ondare Departamentuaren bidez izapidetua izan denez, eta aipatu txosten hori beharrezkoa izango balitz, departamentu horiek egin beharko zuketean txosten juridikoak, hain zuzen Hirigintzaren ikuspegitik eta lege-egokitasunaren aldetik ez delako ezer esatekorik". Idazkaria nagusiaren txostenaren inguruan, berriz, esan behar du hau ere ez dela beharrezkoa gai honetan, Idazkari nagusiak derrigor eman beharreko txostenak 1174/1987 Errege Dekretuaren 3. artikuluan, Toki Erakundearen Antolaketa-erregelamendu eta Funtzionamenduaren 173 eta 174 artikuluetan eta Udal Araudi Organikoaren 39. artikuluan (aldi berean 1174/1987 Edren 3. artikulura bidaltzen duena) adierazten dira. Hortaz, adierazi behar du espedientean dauden txostenak ondo daudela. Azkenik, aitatu nahi du Osoatasuneko Zuzenketa

que "las obras a realizar se deben calificar como obras de inversión". - Revisión del contrato. Se señala en la Enmienda que la propuesta efectuada no tiene naturaleza de modificación puntual dado que altera las condiciones esenciales del contrato actualmente vigente, por lo que entiende que procede una revisión del mismo. Al respecto me remito al informe jurídico que obra en el expediente, en el que se señala en qué consiste las modificaciones que se plantean (asunción de determinadas obras por parte del Ayuntamiento y la prórroga del plazo del contrato de cesión de uso),

señalando que el órgano competente para la aprobación de la cesión de uso es así mismo competente para aprobar, en su caso, su modificación. Ahora bien, como ya se ha señalado es necesario motivar las razones de su modificación. Que no obran informes jurídicos del departamento de urbanismo y de la Secretaría General: En el expediente administrativo obran los informes técnicos y jurídicos preceptivos. En cuanto al hecho de que no constan en el expediente los informes jurídicos del departamento de Urbanismo y de la Secretaría General decir que no constan ni deben constar; en lo que se refiere al informe jurídico de urbanismo, como bien señala el asesor jurídico de dicha área, en informe de 24 de junio de 2013, "al ser un expediente tramitado desde Educación y a través del Departamento de Contratación y Patrimonio, caso de ser necesario este informe, serían estos departamentos los que deberían de emitir informe jurídico, ya que desde la perspectiva del Urbanismo y de su adecuación a la legalidad no hay nada que decir". Así mismo señalar que en lo que se refiere al informe de la Secretaria General, este tampoco es preceptivo en el asunto de referencia, pues los informes preceptivos a emitir por la Secretaria General son los establecidos en la legislación; art. 3

izapidetzeko era. Gai honen inguruan Udal Araudi Organikoaren 51. artikulua zera adierazten du: zuzenketa egileak defendatuko du. Zuzenketaren eztabaida proposamen egileak hasiko du eta ondoren Udaltzako osatzen duten talde eta zinegotzien parte-hartzearekin jarraituko du. Eta amaitu, berriz, proposamen-egileak egingo du. Osotasuneko zuzenketa onartuko balitz, ostera, gaia berehala mahai gainean geratuko litzateke. Osotasuneko zuzenketa ez balitz onartuko, ordea, irizpena emaniko proposamena eztabaidatu eta bozkatuko litzateke. **Ondorioak:** Lehenengo "Socialistas Vascos - Euskal Sozialistak" udal taldeak aurkezturiko osotasuneko zuzenketa eztabaidatu eta

bozkatu behar da. 2.- Osotasuneko zuzenketa onartuko balitz, gaia mahai gainean geratuko litzateke. 3.- Zuzenketa ez balitz onartuko, irizpena emandako proposamena eztabaidatu eta bozkatuko litzateke. Hori bai, kasu honetan gomendatzen da proposamen hori arrazoitua izateko, bestela indarririk gabe uzteko kasuetan sartzeko modukoa izan daitekeelako. Hauxe da jakinarazi behar dudana, beti ere Udaltzak bidezkoa jotzen duena erabakitzeke kalterik egin gabe.

\* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU), Kontuhartzaileari hitza eman baino lehen, behin eta berriz

del RD 1174/1987, arts. 173 y 174 Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Entidades Locales y art. 39 del ROM, (artículo este último que se remite a su vez al art. 3 del RD 1174/1987). Por tanto señalar que los informes jurídicos que obran en el expediente administrativo son los que proceden. Finalmente mencionar cuál es la tramitación de las Enmiendas a la Totalidad. De acuerdo con el artículo 51 del ROM, señalar lo siguiente: - La Enmienda será defendida por el autor de la misma. - El debate de la enmienda comenzará con la intervención del proponente y continuará con la intervención de los grupos y concejales miembros de la corporación. Y finalizará con la intervención del proponente. - Orden

de tratamiento: el debate comenzará por las enmiendas a la totalidad, las cuales, finalizado el mismo, serán votadas. En el caso de que una enmienda a la totalidad resulte aprobada, el asunto quedará automáticamente sobre la mesa. - En el supuesto de que no se aprobase la enmienda a la totalidad se someterá a debate y votación la propuesta dictaminada. **Conclusiones:** 1.- Procede en primer lugar debatir y votar la Enmienda a la Totalidad presentada por el grupo municipal "Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak". 2.- En caso de que se aprobase la Enmienda a la Totalidad el asunto quedaría sobre la mesa. 3.- En caso de que no se aprobase la Enmienda, procederá el debate y votación de la propuesta dictaminada. Ahora bien, en este caso se recomienda que en dicha propuesta se recojan los motivos que la justifican puesto que de lo contrario el acuerdo podría estar incurso en causa de anulabilidad. Es lo que tengo a bien informar, sin perjuicio de que la Corporación acuerde lo que estime oportuno.

\* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU), antes de pasar la palabra al Interventor y ya que

proposamena ez dela arrazoitua aitatzen denez, Idazkariari galdetu dio ea paragrafo horiek sartuta, proposamena nahiko arrazoitua dela ulertuko lukeen.

\* Idazkari nagusiak erantzun du txostenean adierazitakoari atxikitzen zaiola, zehazki Auzitego Gorenaren jurisprudentziak esaten duenari: "zioa arrazoitze batean, azalpen batean, ebazpen batera eraman duen kausen adierazpen arrazional batean datza".

\* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU), Kontu-hartzaileari hitza eman dio, honek egin nahi zaizkion galderei erantzuteko, nahiz eta, kasu honetan, ez izan Idazkari nagusiak idatzizko txostenik, gutxienez kontu horiei buruzko irizpena eman dezan.

\* Udal kontu-hartzaileak esan du azken 24 orduetan eman den literatura-ekoizpen kopuruarekin, txosten bat gehiagok ezer oinarritzorik ez lukeela aportatuko. Espedientean berak ekainaren 14an eginiko txostena bat dago, bertan espediente hau denbora gutxiarekin aboratu dela adierazten da, hori hain konplexua den gai bat aboratzeko orduan ez delarik batere gomendagarria. Bezperan Alderdi Sozialistako bozeramaileak idatzi bat eman zien. Berak bertan egiten diren galdera guztiak xeheki aztertu ditu, ez ditu idatziz jaso, baina osoko bilkuran dagoenez, berak esaten duena jasota geratuko da. Horrela, berak bi zalantza aitatzen zituen: bat, motibatzeari dagokiona, bere ustez, egin diren txosten hauekin guztiekin argituta geratu dena. Eta bestea, gastuen afera zen, urte anitzeko konpromisoak, mantenimenduak edo inbertsiokoak diren. Atal honi dagokionez, azken orduan txosten bat gehitu da,

constantemente menciona la falta de motivación en la propuesta, pregunta a la Secretaria si con la incorporación de estos párrafos, entendería que la propuesta queda suficientemente motivada.

\* La Secretaria General responde que debe remitirse a lo dicho en el informe, concretamente a lo señalado por la jurisprudencia del Tribunal Supremo que dice que "la motivación consiste en un razonamiento, en una explicación, en una expresión racional de las causas que han conducido a una determinada resolución". Se sobrentiende que sí, que así se justifica el por qué de la modificación.

\* El Alcalde Sr. Mendoza (O.E. BILDU) da paso al Interventor para que explique las cuestiones que se le han querido preguntar, señalando que si bien en este caso no hay informe escrito como en el caso de la Secretaria General, al menos pueda informar sobre esos aspectos.

\* El Interventor Municipal señala que con la cantidad de producción literaria que ha habido en las últimas 24 horas, un informe más tampoco iba a aportar nada esencial. Consta en el expediente un informe suyo del 14 de junio, en el mismo habla de la premura de tiempo con que se ha abordado el expediente y dicha premura no es buena consejera a la hora de abordar un tema tan complejo. Ayer les entregó un escrito el Portavoz Socialista, ha estudiado con detenimiento todas y cada una de las cuestiones, no las ha plasmado por escrito, pero puesto que está en el Pleno, quedará constancia de lo que diga. Recogía dos dudas, una la de la motivación, que con toda esta producción de informes, logicamente ya ha quedado aclarada. Por otra parte, en el tema de gastos, de los compromisos plurianuales, de si son mantenimiento o inversión, sobre esto se ha aportado a última hora informe del

berak aitatu duen moduan, Alkateak ezagutzera emango duena, Idazkariak ere aitatu duena. Gauzak horrela, puntuz puntu, lehenengoan eskumenen afera aipatzen da, proposamenaren 2. 3. eta 4. puntuek aurrekontu-aferek dira, aurrekontu-aldaketa, urte anitzeko konpromisoak, etab.en ingurukoak, eta jakina, horiek Udalbatzari dagozkion eskumenekoak dira. Bigarren galderari dagokionez, berriz, sei urteko konpromisoaz urte anitzeko gastuari dagokion guztia jasota dago, baina, haren iritziz, ez da beharrezkoa txosten bat egitea, Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 22. artikuluan, sei puntu dituenan, jasota dagoelako. Funtsezkoena jasota dago lehen aitaturiko bere txostenean. Bertan, Estatuko legeriak ez bezala, Erkidegokoak lau urte baino gehiago permititzen duela dio, urte bakoitzeko zahaztu behar baldin bada ere. Lehenengo urtea bereziki garrantzitsua da, gastu-konpromisoa 77.000 eurokoa delako, eta horretarako 2013ko aurrekontua aldatu delako eta ohoiko baliabideen % 25eko muga ipintzen da. Kasu honetan, % 25eko muga hamar bat milioi izango liratake eta egun hartuta dauden konpromisoak sei bat milioi pasatxo dira. Hirugarren atalean baldintzak betetzeaz hitz egiten da. Gai horri dagokionez aipamen berezi bat egiten da laugarren puntuan, hain zuzen konpromisoazko maileguak gehiago izango direnez, horiei aurre egiteko nahiko baliabide finantziario badagoela adierazten da. Ondo dakizuen moduan, Udalbatzak azken Aurrekontuetan sei milioi eta erdiko konpromisoazko kredituak onartu zituen, orain 466.000 euro gehiago erantsiko zaizkio. Orain berak esan dezaken gauza bakarra, lehen egindako txostenean esan ez zuena, zera da: holako kontuen aurrean beti gomendatzen du zuhertasuna, egoera ekonomikoak gastu bat egin behar den aldiro gogoeta egitera behartzen duelako, nahiz eta zuhertasuna bakoitzak nahi duen erara ulertzen duen kontzeptua izan. Logikoki hor ez da aurreikusten kanpotik etor litekeen finantzaziorik, eta ez da orain

que, como él mismo ha comentado, dará cuenta el Alcalde y que también ha mencionado la Secretaria. Punto a punto, en la primera de las cuestiones se plantea el tema de la competencia, los puntos 2, 3 y 4 de la propuesta hacen referencia a temas presupuestarios, modificación presupuestaria, compromisos plurianuales, etc., y lógicamente son competencia del Pleno. En cuanto a la segunda cuestión, compromiso por seis años, todo lo referente a gasto plurianual está recogido, pero no es necesario hacerlo en un informe, en la Norma Foral Presupuestaria, Artículo 22, artículo que contiene siete puntos. Lo esencial está recogido en su informe antes mencionado, donde señala que a diferencia de la legislación estatal, la autonómica permite más de cuatro años y hay que especificar un importe por cada año. El primer año es especialmente importante, porque es el compromiso de gasto, son los 77.000 euros para los que se modifica el presupuesto del año 2013, y luego establece el límite del 25% de los recursos ordinarios. En este caso, el límite del 25% serían diez millones, y los compromisos actuales son de seis millones y pico. En la parte tercera se habla del cumplimiento de los requisitos, hay una mención especial en el punto cuatro a la suficiencia de recursos financieros para hacer frente al nuevo volumen de créditos de compromiso. Como bien saben, el Pleno de la Corporación en los últimos Presupuestos aprobó el estado de créditos de compromiso por seis millones quinientos mil euros, ahora se añaden 466.000 euros más. Ahora, lo único que puede decir, que no decía en su informe, es que ante esto siempre recomienda prudencia, porque la situación económica hace que haya que reflexionar cada vez que se incurre en un gasto, pero la prudencia es un concepto que cada cual lo entiende a su manera. Lógicamente ahí no se contempla la posible financiación externa que pudiera haber, y no se está refiriendo a este

Orereta ikastolarako gehitzen den urte anitzeko gastu-proiektu honetaz ari, Udalbatzak Kultura-ekipamenduei buruz onartutakoaz baizik. Arazo bat gerta daiteke, baina urte bakoitzerako onartzen diren aurrekontuetan aztertuko den kontua izango da hori. Une hauten, jakina, bete beharko dira aurrekontu-egonkortasuna, finantzazio-iraunkorra eta gastuaren mugari buruzko printzipioak. Aurrera eginez, laugarren puntua argi geratu da Arkitektoaren txostenarekin, eta seigarren puntuan bazterketaz hitz egiten duenean, gastu-konpromisoetan sartzen ez diren kontzeptu oso zehatz batzuek dira: langileria, finantza-karga, etab.. Beraz, hasieran esan duen moduan lehen egindako txostenari ez du ezer berezirik gehitzeko, baina Euskadiko Alderdi Sozialistaren bozeramaileak eginiko eskaerari erantzunez, uste du, bere ñabardurak jasota geratuko direla.

\* Mendoza alkate jaunak (O.E. BILDU) esan du aitaturiko bi txosten hauez gain, Hirigintza departamentuak eginiko txostena dagoela mahai gainean, zeinak esaten duena esaten baitu. Alegia, inbertsio eta gastuen arteko nahasketa hori, guztia inbertsioa dela aipatzen du. Hemen ere gauza bera aitatu da, orain berak ez daki udal ordezkarien partetik gaiaren inguruan zalantzarik ba ote dagoen.

